


AINHOA RASEROREN IBILBIDEA



Lan merkatua



Salmenta Kudeaketa eta Marketina goi-mailako heziketa zikloko bigarren mailako ikaslea da Ainhoa Rasero, Oñatiko Gestio Heziketan (Mondragon Unibertsitatea). Egun, Edesa Industrial SL enpresan dihardu FP Dual programaren bitartez.

ditugu. Orain, martxotik aurrera, enpresan gaude egun osoz.

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azokoa

GOIAZ! 2017

Lanbide Heziketaren Azokoa
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten



goiazdebagoiena



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzaria, Legebiltzaria
eta Legebiltzaria, Legebiltzaria

Unibertitate ikasketak egin zenuen lehenik, eta ondoren Lanbide Heziketa aukeratu. Nolatan?

Bai. Aurrez, gradu mailako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak egin, eta nazioartean pare bat lan-esperientzia izan niteuen. Momentu batean lan gabe geratu nintzen, eta marketin arloan sakondu nahi nuen, baina ez nengoen master bat egiteko prest. Dual programa honen aukera jakin nuenean, erabaki nuen Lanbide Heziketa ikastea.

Zer eskaintzen du Dual programak?

Enpresa batean lanean hasten zara lehen maila bukatzean, eta bigarren mailako hainbat ikasgai enpresan bertan ikasten dituzu. Goizez enpresan lanean eta arratsaldean eskolak izaten

Zer eskaintzen dizu enpresak?

Nire kasuan, Marketin eta Komunikazio Departamentuan nago, eta negozio-linea guztietatik pasatu naiz bakoitzaren zereginak eta lanak ezagutzeko. Egun, Confort linean fokalizatuta nago, product manager lanean. Komunikazio arloko lanak ere egiten ditut; webguneak eta katalogoak berri, azokatan parte hartu, eta abar.

Zer jasotzen du enpresak?

Enpresak urtebete horretan prestatu egiten zaitu, bere beharren arabera, eta ondoren, langile beharra badu, hartu egin zaitzakete, jada postua eta enpresa ezagutzen dituzulako, eta enpresak ere zuk nola lan egiten duzun dakielako.

Eta geratzeko aukerarik izango duzu?

Geruz eta ardura gehiago ematen dizkidate, eta, jende gutxi gaudenez, lan asko daukagu. Oraingoan, esan didatenez, geratzeko aukerak izango ditut maiatzean.